

**ENERGIA-KOMUNITATEEN ERAKETA ETA KUDEAKETA
ETA HORIEI LOTUTAKO EGUZKI-ENERGIA
FOTOVOLTAIKOKO INSTALAZIOETAN
(AUTOKONTSUMO KOLEKTIBOKO ERREGIMENEAN)
INBERTSIOA BULTZATZEKO GASTEIZKO UDALAREN
DIRULAGUNTZA-DEIALDIA ETA OINARRI
ARAUTZAILEAK 2024. URTERAKO DEIALDIAREN**

INFORMAZIO-GIDA





Nork sortu du gida hau?

Gida hau [Gasteizko Eraldaketa Komunitarioko Bulegoak](#) sortu du. Energia-komunitateak sortzeko interesa duten herritarrei, elkarteei, ETE-ai eta langile autonomoei, tokiko erakundeei (baita menpekoei) eta interesa duten entitateei aholkularitza eta laguntza emateko bulegoa da.

Norentzat da gida hau?

Gida hau Gasteizko udalerrian energia-komunitate bat sortu eta eguzki-energia fotovoltaikoko instalazio bat abian jarri nahi duten herritarrei zuzenduta dago.

Gidaren helburua

Gida honen bitartez *Energia-komunitateen eraketa eta kudeaketa eta horiei lotutako eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioetan (autokontsumo kolektiboko erregimenean) inbertsioa bultzatzeko Gasteizko udalaren dirulaguntza-deialdia eta oinarri arautzaileak 2024. urterako dirulaguntza-deialdiaren informazio garrantzitsuena ezagutarazi nahi da.*

Gida hau Gasteizko udalaren dirulaguntza deialdi ofizialeko hainbat atalen laburpena da, eta bertan azaltzen dira erakunde onuradunei buruzko oinarriak, eta deialdian diruz lagun daitezkeen gastuak eta zenbatekoak. Dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak jasotzen dituen dokumentu ofiziala [abenduaren 2an ALHAOn argitaratu zen](#).

Laguntzei buruzko informazio-gida honekin batera, beste azalpen-gida bat prestatu da. Bertan, dirulaguntza eskatzeko eta ondoren justifikatzeko eman beharreko pausoak zehazten dira.

Gidaren edukia

1. Dirulaguntzen aurkezpena
2. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak eta eremuak
3. Entitate onuradunak eta betekizunak
4. Entitate onuradunen betebeharrak
5. Diruz lagundu daitezkeen gastuak
6. Dirulaguntzaren zenbatekoa
7. Dirulaguntzaren ordaintzea
8. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna



1. Dirulaguntzaren aurkezpena

Gasteizko Udalak, trantsizio energetikoarekin eta klima-aldaketaren aurkako borrokarekin duen konpromisoa dela eta, hainbat jarduera egiten ditu energia komunitarioko proiektuak sustatzeko. Hori dela eta, 2024ko uztailetik aurrera, Gasteizko Eraldaketa Komunitarioko Bulegoa (EKB) herritarren eskura dago, tokiko energia-komunitateak (EK) bultzatzeko hedapen-, laguntza- eta aholkularitza-zerbitzuak eskainiz.

Testuinguru horretan, udalak dirulaguntzen deialdi bat jarri du martxan, udalerrian energia-komunitateen eta autokontsumo kolektiborako eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioen garapena bultzatzeko.

Ekimen hau bat dator hiriko klima- eta energia-arloko ekintza planekin, eta klima-neutraltasunaren helburua lortzea laguntzeaz gain, tokiko komunitatearentzat energia-eredu jasangarria, inklusiboa eta onuragarria ere sustatzen du.

2. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak eta eremuak

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak 2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean egiten direnak dira, edo kreditua agortu arte.

2.1. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

1. kontzeptua: energia-komunitateak eratzeko eta kudeatzeko gastuak

- **Dokumentuak izapidetzeko** gastuak: energia-komunitatea eratzeko legezko dokumentuak idaztea eta inskribatzea (estatutuak, eskritura publikoak, etab.)
- Energia-komunitatea eratzeko eta kudeatzeko **web-orriak edo aplikazio informatikoak** diseinatu eta lantzeko gastuak.
- Ez dira diruz lagunduko Gasteizko Eraldaketa Komunitarioko Bulegoak energia-komunitateei edo talde eragileei zuzenduta egiten dituen eta inolako kosturik ez duten jarduketak, hala nola partaidetza-prozesuak antolatzea, informazio-kanpainak egitea, pertsona fisiko edo juridiko interesdunen aurreinskripzio-lanetarako beharrezkoak diren bitartekoak prestatzea (web-orriak, inskripzio-orriak, etab.), bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren analisiak eta gobernantza-aukerak, energia fotovoltaikoko instalazioen bideragarritasun-azterketak, instalazio fotovoltaikoak kokatzeko beharrezkoak diren estalkiak lagatzeko txosten juridikoak lantzea eta akordioak idaztea, etab.
- EZ dira diruz lagunduko:
 - Gasteizko EKB-rentzat inolako kosturik ez dituzten jarduerak
 - bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren analisiak eta gobernantza-aukerak
 - energia fotovoltaikoko instalazioen bideragarritasun-azterketak
 - instalazio fotovoltaikoak kokatzeko beharrezkoak diren estalkiak lagatzeko txosten juridikoak lantzea eta akordioak idaztea



2. kontzeptua: energia-komunitateei lotutako instalazio fotovoltaikoetan inbertitzea

- Instalazio fotovoltaikoaren **proiektu teknikoa**
- Instalazio fotovoltaikoa egitea eta obra zuzentzea
- Izapidetzeko eta legeztatze behar den dokumentazioa lantzeak dakartzan gastuak, baita dirulaguntza eskatzeko eta justifikatzeko dokumentazioa prestatzekoak ere.
- Eguneroko kudeaketarako web-orriak edo aplikazio informatikoak diseinatu eta lantzeko gastuak
- Soilik **diruz lagunduko da:**
 - Instalazio FVak ekoiztako energia soilik energia-komunitateko bazkideentzat bideratzen bada.
 - Instalazio fotovoltaikoak EZ badu lurzoru gehiagorik artifizializatzen.
 - Gasteizko udalerrian kokatzen diren eta alde zuzenetik erabili ez diren ekipu berriez osatuta dauden proiektuak badira.
- **Diruz lagunduko EZ direnak:**
 - Araudi sektorialak aginduta ezarritako instalazio fotovoltaikoak,
 - ezta instalazioa hirigintza-araudian sartzen ez bada
 - edo hirigintza-lizentziarik ez badu ere, beharrezkoa denean.

2.2. Jarduera-eremu geografikoak

1. eremua: auzo zaugarrienak, ofizialki eremu degradatuak dituztenak eta Erdi Aroko Hirigunea (deialdiaren I. eranskinean eskuragarri dago mapa).

2. eremua: Gasteizko udalerriko gainerako auzoak eta menpeko toki erakundeak.

2.3 Aurrekontu-zuzkidura

Deialdi honetako aurrekontu-zuzkidura **600.000 eurokoa** da.

Aurrekontu-zuzkidura bi jarduera-eremuen artean banatuko da, honela:

- **1. eremua:** aurrekontuko diru-izendapenaren % 60a (**360.000 €**).
- **2. eremua:** aurrekontuko diru-izendapenaren % 40a (**240.000 €**).



3. Entitate onuradunak eta betebeharrak

3.1. Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke

1. kontzeptua: energia-komunitateak eratzeko eta kudeatzeko gastuak.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro publikoan **inskribatuta dauden elkarteak**.
- Pertsona fisikoek, enpresa txiki eta ertainek (saltokiak, bulegoak, lantegi txikiak, etab.) edo erakunde publikoek osatuak, talde eragile gisa, baldin eta **energia-komunitate bat eratu nahi badute** eta **bazkideen %75ek baino gehiagok jarduera ekonomikorik egiten ez badute**.

2. kontzeptua: energia-komunitateei lotutako instalazio fotovoltaikoetan inbertitzea.

- Nagusiki bizitegietako kontsumitzaileek osatutako **energia-komunitateak**, zeinek ez baitute **jarduera ekonomikorik egingo**, baldin eta hari lotutako instalazio fotovoltaiko batean inbertitzeko dirulaguntza eskatzen badute.
- Energia-komunitatea **nortasun juridikoa** duen izaera pribatuko erakundea izango da, zeinean **bazkideen %75ek baino gehiagok ez dute jarduera ekonomikorik egingo**.

3.2. Betebeharrak

- ❖ Erakunde onuradunek Gasteizko udalerrian eduki beharko dute **helbide sozial eta fiskala**, eta diruz lagundu nahi den instalazio fotovoltaikoa ere bai
- ❖ **Ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan** Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11.2 artikuluan aurreikusitako egoeretan dauden entitateak. Bereziki, **zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dutenak**.

Eskaerak aurkezteko epea 2025eko martxoaren 31n amaituko da.

4. Entitate onuradunen betebeharrak

- ❖ Diruz lagundutako jarduketak zuzen eta osorik gauzatzeko **behar diren izapideak egitea eta baimenak lortzea**, lanen hasieratik lanak behin betiko jaso eta legeztatu arte.
- ❖ **Instalazioa argindarra banatzeko sarera konektatzeko eskatzea eta Gasteizko Udalari** konexioa gertatzen den unean **jakinaraztea**.
- ❖ Instalazioek sortutako energia elektrikoa **monitorizatzeko sistema** bat izan beharko dute.



- ❖ Energia-komunitatearen **urteko estatistika-datuak** Gasteizko Udalari bidaltzea, bidali aurreko urtean eguneratuta, dirulaguntza eman eta **hurrengo 5 urteetan zehar**. Bidali beharreko datuak:
 - Bazkide kopurua.
 - Erakunde juridiko mota.
 - Energia-komunitateak kudeatutako instalazio fotovoltaikoek sortutako kapazitatea eta energia.
 - Bazkideen autokontsumorako ekoiztako energiaren %a.
- ❖ **Instalazio fotovoltaikoa dirulaguntzaren xederako erabiltzea, gutxienez 5 urtez.**
- ❖ Pertsona eta erakunde onuradunek dirulaguntzaren **publizitatea egiteari dagokionez**, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 14. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.
- ❖ **Pertsona solaskide bat** izendatu beharko du Gasteizko Udalarekiko koordinazioa errazteko .
- ❖ Dirulaguntza hauen onuradun diren energia-komunitateek **emakumeak** beren bazkideen artean integratzea sustatu beharko dute, bereziki zuzendaritza-batzordean, **eta** bazkideen artean **zaugarriak diren kolektiboak integratzea** ere bai.

Betebehar hauek bete beharko dira, **dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean eta Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean** ezarritako betebeharrez gain.

5. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

- ❖ Diruz lagundu daitezkeen gastutzat jotzeko, horiek dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zalantzarik gabe lotuta egon beharko dute, eta beharrezkoak izan haiek gauzatzeko.
- ❖ Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostuak ezin izango du inolaz ere merkatuko balioa gainditu.
- ❖ Obra zibileko gastuak diruz laguntzeko modukoak dira, diruz lagundutako jarduketarekin zuzenean lotuta ez daudenak eta horretarako ezinbestekoak ez direnak izan ezik.
- ❖ Proiektua egiteko kostuen eta, behar izanez gero, obra-zuzendaritzaren batura ez da instalazio fotovoltaikoaren kostu osoaren % 10 baino handiagoa izango.
- ❖ Diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa obra-kontratuetan 40.000 €-tik gorakoa bada eta hornidura-kontratuetan edo zerbitzuak emateko kontratuetan 15.000 €-tik gorakoa, erakunde onuradunak gutxienez hiru eskaintza desberdin eskatu beharko ditu.

- ❖ Aurkeztutako eskaintzak aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da hautaketa, proposamen ekonomiko onuragarriena ez denean.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko argi zehaztuta ez dauden edo zuzenean inbertsioaren helburu energetikoak lortzea xede ez duten gastuek:

- finantzaketa-gastuak, ezta zerga eta tasei dagozkienak ere; bereziki BEZa,
- ekipoak eta instalazioak konpondu, egokitu eta mantentzeko inbertsioak,
- gastu propioak; hala nola, langileak, funtzionamendua edo gastu orokorrak,
- inbertsioaren ondoriozko finantza-gastuak
- instalazioa kokatzeko lekuak erosteko edo alokatzeko kostuak,
- aseguruak; obrak egiten diren bitarteko zaintza eta segurtasuna,
- diruz lagundu daitezkeen instalaziotik energia ebakutzeko soilik ez diren linea elektrikoak egokitu, birmoldatu edo gauzatzea.
- Ingurumen-babes handiagoa lortzearekin zuzenean lotuta ez dauden kostuak,
- ezta argi zehaztuta ez daudenak edo inbertsioaren energia-helburuak lortzea helburu zuzena ez dutenak ere.

Edonola ere, **Gasteizko Udalaren irizpidea izango da nagusi ezadostasunik izanez gero.**

6. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen **gastuen zenbatekoaren ehuneko bat izango da, BEZik gabe:**

EREMUAK	KONTZEPTUAK
%80 1. eremurako	1. kontzeptua: <ul style="list-style-type: none"> ● min: 750€ ● max: 5.00€
%70 2. eremurako	2. kontzeptua: <ul style="list-style-type: none"> ● min: 10.000€ ● max: 70.000€

Aurrekontu-zuzkidura soberan egonez gero, ALHAOn argitaratutako dokumentuan jarduteko modua zehazten da.



7. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza entitate onuradunaren kontu korrontera **banku-transferentziaren bitartez** ordainduko da.

1. ordainketa: emandako dirulaguntzaren %65, justifikazioaren aurretik, dirulaguntza ematea onartu denean.

2. ordainketa: gainerako %35 dirulaguntza justifikatu ondoren.

Ordainketa ez da egingo baldin eta...

- erakunde onuradunak Gasteizko udalak emandako beste dirulaguntza bat justifikatu gabe badu,
- aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik,
- edo zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu.

8. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Bateragarriak dira hainbat administrazio edo erakunderen beste laguntza batzuekin, publikoak zein pribatuak, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak izan.

Gasteizko Udaleko beste sail, erakunde edo enpresa **batzuek emandakoak izan ezik**, horiek bai izango dira **bateraezinak**.

Dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez Udalaren dirulaguntzarena, ez beste laguntza batzuenena. Hau gertatuz gero, Udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa murriztuko da, indarrean dagoen araudiaren arabera.



Azalpen-gida hau dirulaguntzaren zenbatekoak, epeak, kontzeptuak eta eremuak zehazteko, eta dirulaguntza jaso ezker onuradunak dituen betebeharrak azaltzeko egin da. Dokumentu bakoitzeko zehaztapen guztiak eta bakoitzean ezarritako arategia dirulaguntzaren deialdi ofizialen azalduta daude. Gida hau deialdi ofizialaren gehigarri bat da.

Dokumentuaren egilea:



Vitoria-Gasteiz
Eraldaketa Komunitarioarako Bulegoa
Oficina de Transformación Comunitaria



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala